



Iguala kasuari buruz zenbat eta gehiago jakin, orduan eta empatia handiagoa sentitzen du gizarteak Trump-en eta horren antzeko politikari kezkarriekiko. Azken batean, zeinek nahi du bere

etxean bertan eduki narkotrafikoaren eta mafia mexikarren hazia, bere kotarik ankerrenetara eta gizagabeenetara eramana?

Bestalde, ezta erotuta ere ez nintzateke Mexikora oporretan joango. Ez soilik segurtasun-arrazoiengatik –eta horrengatik ere bai–, Iguialako eta Mexikoko beste edozein tokitako familiekiko elkartasunagatik baizik, Mexikoko gizartearen maila guztietan (polizian, armadan, erakundeetan...) zeharo txertatuta dagoen horrekin egunero bizi behar dute eta.

Eta Mexikoko gobernu ustelari eta kirasdunari argi eta garbi utziko nioke: etxea garbitzen ez duzuen bitartean, ez gonbidatu inor hura ezagutzera.